



2024ko abenduak 15
PRENTSA KOMUNIKATUA

2025eko Hezkuntzako Aurrekontuak: diru publikoa Eskola Publikoarentzat

EAEEn 2025eko aurrekontuen eztabaida ematen ari den egunotan, **“Hezkuntzako Aurrekontuetan, diru publikoa eskola publikoarentzat!”** ozen aldarrikatu nahi dugu gaur hemen bildu garenok.

Astebete berru urteurrena beteko duen EAEko Hezkuntza Legearen babesean, pribatuaren finantzazioa nabarmen handitu du Hezkuntza Sailak, hau da, itunpeko sare pribatura bideratzen ari dira eskola publikoak behar dituen baliabideak.

Honekin batera, eskola publikoak ume guztientzat lekua duen hainbat herri eta auzoetan, beharrezkoak ez diren plazak kontzertatzen jarraitzen du eskola publikoak hustuz eta, ondorioz, kudeaketa ekonomiko eskasa eginez. Hori gutxi balitz, 2 urteko B ereduko dozenaka gelak itundu ditu ere, legeak berak ezartzen dituen hizkuntz helburuak beteko ez dituzten arren.

Eskola-segregazioaren etengabeko iturria den hezkuntza-sistema dual publiko-pribatuak porrot egin du alor ekonomikoan, emaitzetan, euskalduntze prozesuan eta kohesioan. Eta kontzertazioa da gure hezkuntza sistema dual honen zergatia. Bada garaia, denon artean ordaintzen dugun mekanismo hau birplanteatzeko.

Gure aldarrikapena argia da: eskola publikoa lehenetsi behar da planifikazioan, azpiegituretan eta baliabideetan. Hori da gizarteak behar duen kalitatezko euskal hezkuntza-sistema berdintzailea bermatzeko bide bakarra.

Ez dezagun erabili denon dirua beharrezkoa ez den hezkuntza-eskaintza batean, ez dezagun jarraitu kohesioaren kontra jokatzeko duen kontzertazio-sistemarekin. Erabili dezagun denon diru publikoa denon eskola publikoan.

**DIRU PUBLIKOA ESKOLA PUBLIKOARENTZAT!
KONTZERTAZIOAREKIN BUKATU ERA PROGRESIBOAN**

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO TOPAGUNEA